


Epilogorik gabe



Elena Sanchez Fuertes

Bilduma: Poesia, 49

Formatua: 130 x 205 mm

Orrialdeak: 64

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-10-18

ISBN-a: 978-84-9109-978-9

Materia: Helduentzako literatura



Salmenta prezioa

11,00 €

2023ko Blas de Otero - Ángela Figuera poesia saria

Beti liluratu nau bere poesiaz teorizatzen duen jendeak. Niri kostatu egiten zait, poesia berez sortzen dela iruditzen zaidalako.

Hala ere, modu batean edo bestean definitu beharko banu poema liburu hau, desilusio eta aldi berean erresistentziaren poetikaz hitz egin beharko nuke. Desesperantzatik, desenkantutik sortutako bilduma da, «mundua etengabeko gerra batean/ urtzen den bitartean», «The Clash taldearen kanta zaharrak/ patioko esekitokietatik zintzilik./ Nostalgia elastiko beltzetan».

Baina itxaropenik gabe bizitzea ez bizitzea bezalakoa baita, etorkizunik ez izateak eragiten duen beldurraren tiraniaren aurkako erresistentzia ere bada orrialde hauetan, eta epilogorik gabe zabaltzen zen poema sortari epilogoa idatzi, oparitu, nahi izan diot, desilusioari ilusioa piztuz, desesperantzari esperantza izpi bat emanaz, «gramatika berri bat» idatziz «aditzaren paradigma, sikiera/ egunen batean aldatuko delakoan».

*Mende luzeetako estigmatizazio erdeinagarria
errebeldiaz janzten da.
Unikornio beltza.
Desberdin izatearen beldurrari uko,
pribilegioaren harresi zuriak eraitsiz.*

*Harlemen euria ari du
eta Berlingo kaleetan
emakume beltz batek
eguzkiak eta adarbakarrak margotzen ditu
adreiluzko etxe arraildu bateko horman.*

Elena Sanchez Fuertes



ELENA SANCHEZ FUERTES
(Barakaldo, Bizkaia, 1967).

Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatua, gaur egun Euskara eta Literatura eta Literatura Unibertsala irakaslea da Barakaldoko Beurko institutuan.

2021ean Urretxu eta Zumarragako udalek sortutako Iparragirre saria jaso zuen Bermingham argitaletxeak kaleratutako *Kaleidoskopioak* lanarekin.